



INGURUGIROKO PRAKTIKA ONEN DEKALOGOA

Gorlizko Turismo bulegoa ingurumenarekiko ardura-irizpideetan oinarritutako printzipioen arabera kudeatzen da.

Horrela bada, **Praktika onen dekalogo** hau helburu bikoitzaz ezarri da: Batetik, interesatuta dauden alderdi guztiei (langileak, administratzaileak, bisitariak, bazkideak eta hornitzaileak) ingurumenaren garrantziaz ohartarazteko, eta bestetik, bisitarien artean ingurumenean ahalik eta eragin gutxien duten prozedurak erabiltzeko ohitura sustatu eta berorren zainketarako aholkuak emateko.

- ☐ Baliabide naturalak, hala nola ura eta energia, neurriz erabili
- ☐ Ohartarazi baldin eta gure inguruan gehiegizko energia-kontsumorik igartzen baduzu
- ☐ Aukeratu ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duten hornitzaile eta zerbitzuak
- ☐ Ahal dela, garraio publikoa erabili. Gorlizko turismo bulegoan metro eta trenarekin ditugun loturen berri emango dizugu.
- ☐ Ahalik eta hondakin gutxien sortu
- ☐ Hondakinak modu garbian eta arduratsuan suntsitu
- ☐ Gune naturaletan zaudenean laga dena garbi, egon zarelako arrastorik utzi gabe.
- ☐ Lagundu gure ingurune naturala, gure basa-flora, fauna eta habitata kontserbatzen.
- ☐ Ziurtatu ezarri beharreko legedia eta araudia betetzen ari zarela
- ☐ Gozatu bertoko gastronomia eta artisautza
- ☐ Erosi gure kulturaren adierazpide diren produktu eta oroitzapenak. Hemengo familien ekonomia sustatzeko lagunduko duzu.
- ☐ Oporrak, zuen seme alabei naturarekiko eta herriarekiko praktika onuragarriak irakasteko, aukera paregabea dira.